

OLERTI EGUNA

1979

Aurten, emeretzigarren urtez ospatuko dogu emen, Larrea'n, Oler-ti Eguna. 1960'garrenean asita, utsik gabe, olaxe jaitu izan da, sarri ixil-samar daukaguzan euskal olerkari arnasa aundiko naiko bizkortu ta sorpen ederrez euren lanak ornitu ta erakutsi-azken jarririk.

Onako jaiak bearrezkoak diranik ez dausku iñok ukatuko. Erbiak gitxien uste dan lekuan zapart dagianez, olerkariak be, lengoak eta barriak, olantxe agertu oi yakuz sarri. Eta olerkari premiñan gagoz; onak izan ditugu, baiña zenbat eroan dauskuzan erioak, sasoirik ede-rranean eroan be! Barriak, gazteak bear doguz, ba, aurretikoen lanari lotu ta arein asmoak aurrera aterateko.

Beste urteetan lez, aurtengo jai au be, azaroaren azkenerantz ospatuko dogu; au da, datorren illaren 25'an Kristo Errege egunean. Onela: goizean 11,30'etan, meza abestua, ondoren olerkiak saritu, irakurri, itzaldiak eta abar, anai arteko bazkari ederrez amaiturik.

Sariketa, igaz lez, olerkiak iru sailletan bananduta: a) *Lirika saila*; b) *Poema luze samar bat*, eta d) *Bertsolarien txokoa*, amar-ama-bi bat gai diferente, lau bat estrofa aapaldigaz gai bakoitza. Saria: milla pezeta, sail bakoitzerako.

Aurtengo egun au, igaz erabagita itxi genduanez, J. Zaitegi zana-ren omenez egingo dogu. Bera bizi zala eskeñi nai izan geuntsan ome-naldi eder bat; baiña Balbea gu baiño bizkorrago ibilli yaku. Dana dala, Arrasate'ko Udalak eta guk, guztiok alkarren leian, il ondoren-go jai bikaiña opatzeko asmotan gara.

Ortarako, arrasatear J. M. Velez Mendizabal gazteak Zaitegi'ri buruzko bizi-zeaztasunak azalduko dauskuz; nik Zaitegi'ren olerkiari ekingo dautsat, eta irugarren batek aren olerki-sail irakurriko dausku. Omena merezi dauanari omena emon bearko.

A. O.